

Deustun, 2012ko urtarrilaren 30ean

SANTURTZI - SALESIANOS

Sarrikoko metro geltokian gelditu ginen pasa den larunbatean Santurtzira joateko. Bidaia luzea baina dibertigarria izan zen, batez ere kiroldegira joateko tarte labur hartan ondo pasatu genuelako: olgetan, herria ikusten, kaian zegoen aldapan jausi zen neska bati barre egiten... Gure mutikoez aurpegi alaiak zeuzkaten.

Kiroldegia guztiz polita eta berria zen. Azkenean, gure jokalariek barruan jokatu zuten, eta hori eskertzekoa zen egiten zuen eguraldiarekin. Beste partidu bat zegoen, eta ordu erdi bat itxaron behar izan genuen; abagune aproposa gurasoek kafe bat hartzeko. Partidua hasi bezain laster, gure mutilak bizkor eta abiadura handiz aritu ziren. Lehen minututik azkenekora asko disfrutatu genuen gurasoek; batez ere, primeran jokatu zutelako gure jokalariek.

Hala ere, ez genuen irabazi. Baina diferentzia ez zen handia izan: bost punturen alde atera ziguten Santurtzikoek. Haietariko jokalaria bat oso ona zen, eta berari esker hartu zuten aurrea markagailuan; bigarren zatian ez zuten atera, eta, handik aurrera, ez zen egon hainbesteko alderik: saskiratze gehiago hasi ziren lortzen Salesianoskoak. Horrek balio izan zuen gure mutilek jo eta ke aurrera jarraitu zezaten; ahalegin handia egin zuten.

Irabazteko irrikan geunden! Azkenean ez genuen lortu, baina gure poza handia izan zen, gure mutilak aurrerantz doazela ikusten dugulako eta gero eta adoretuago dabiltzalako. Dutzatu eta gero, gure jokalariek zain zeukaten bizkotxo zati bana, eta gogo handiz hartu zuten. Denbora galdu barik, hirurak zirela, metrora joan eta etxerantz abiatu ginen.

Aurrera, mutilak, eta zorionak ikusi genuen partiduagatik!!